

**Fiskalizazio Txostena**  
**Informe de Fiscalización**

**Eusko Trenbideak, SA Sozietate Publikoa**

**Sociedad Pública Ferrocarriles Vascos, SA**

**2016**





## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>LABURDURAK .....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>9</b>
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA .....	9
II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	10
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....</b>	<b>11</b>
III.1 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA .....	11
III.2 LANGILERIA .....	12
<b>IV. 2015 ETA 2016-KO EKITALDIEN URTEKO KONTUAK.....</b>	<b>13</b>
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>19</b>
<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>37</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>39</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>41</b>
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	41
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS .....	42
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>43</b>
III.1 CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS .....	43
III.2 PERSONAL .....	44
<b>IV. CUENTAS ANUALES DE LOS EJERCICIOS 2015 Y 2016 .....</b>	<b>45</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>51</b>
A.1 Legislación aplicable .....	51
A.2 Actividad de Euskotren .....	51
A.3 Activo no corriente .....	52
A.4 Activo corriente .....	55



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

A.5	Patrimonio neto.....	56
A.6	Subvenciones de explotación recibidas.....	57
A.7	Pasivo no corriente .....	57
A.8	Pasivo corriente .....	58
A.9	Ingresos y gastos .....	58
A.10	Convenios 2016 analizados .....	61
A.11	Análisis de contratación.....	62
A.12	Adquisiciones tramitadas como compras menores .....	63
A.13	Períodos de pago.....	63
<b>ALEGACIONES .....</b>		<b>65</b>

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 25a  
Vitoria-Gasteiz, a 25 de enero de 2018

## **LABURDURAK**

AGK (Arnas gutxiegitasun kronikoa)	Kapitaleko Errenten gaineko Zerga
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
BGP	Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EB	Espainiako Konstituzioa
ETS	Euskal Trenbide Sarea
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
SPKLTB	Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TJM	Tituluak Jaulkitzeko Makinak
XG	Xedapen Gehigarria



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren urteko lan programak Eusko Trenbideak, SA sozietate publikoaren 2016ko ekitaldiaren fiskalizazio lana besarkatzen du (aurrerantzean, Sozietatea edo Euskotren).

Sozietatea HKEEK azken aldiz 2012ko ekitaldian fiskalizatu zuen eta 1982ko ekainean izenpetutako eskritura publiko bidez sortu zen. 1982ko maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretu bidez onartu zen Euskotren sortzea eta estatutuak onartzea. 2016ko azaroaren 29ra bitartean Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari atxikia dago eta orduz geroztik Ekonomia Garapen eta Azpiegituren Sailari.

Sozietatearen helburu nagusia tren bidezko garraio zerbitzuak ematea da, bai bidaiariena, bai salgaiena eta gurgildun materialaren zaintza lanak ez ezik, tren bidezko garraioari lotutako edo haren osagarri diren beste zerbitzu batzuen ere besarkatzen du. Bereziki, sozietateak zeinahi xedapen juridiko edo arauemailek agintzen dion heinean, EAERI abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretu bidez eta abenduaren 18ko 371979 Lege Organiko bidez eskualdatutako trenbide-lerroen ustiapena gauzatu ahal izango du.

Gainera, Gobernu Kontseiluak 2006an onartutako estatutuen aldaketa partzialari jarraikiz, martxoaren 21eko 67/2006 Dekretuaren babesean, sozietatea sortzen duen Dekretuaren hirugarren aldaketari buruzkoan, Sozietateak orenen intereseko Trenbide Sarean bildutako lineen gainean trenbidezko garraio zerbitzu oro eman ahal izango du.

Sozietatearen helburu da, halaber, jarduera nagusiarekiko izaera osagarriarekin:

- a) kable, tranbia, funikular edo errepede bidezko garraio-zerbitzuak ematea.
- b) Arestian aipatutakoez bestelako baliabideen bitartez bidaiari zein salgaien garraio zerbitzua ematea.
- c) Garraio zerbitzuaren prestazioaren gaineko azterlana eta aholkularitza ez ezik, zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol teknikoa ere egitea.
- d) Garraioarekin loturiko jabetza publikoko museoek kudeaketa-lana.
- e) Agindu dakizkion loturiko bestelako zeinahi eginkizun betetzea.

Aurreikusitako jarduera nagusia eta osagarriak Sozietateak zuzenean garatu ahal izango ditu edo zuzenbidean onartutako bestelako zeinahi moldetan, helburu bereko edo antzeko beste erakunde batzuetan bazkide izaerarekin esku hartuta, esate baterako.



Legezko xedapenek sozietatearen helburu den jardueretakoren bat gauzatzeko lanbide-titulu, administrazioaren baimen edo erregistro publikoetan izen-ematea eskatuko balute, jarduera horiek lanbide-titulu hori duen pertsonak gauzatu beharko ditu eta, kasua balitz, ezin abiaraziko dira harik eta eskatutako administrazioko baldintzak bete arte.

## Fiskalizazioaren helburua

Lanaren mamia honako hau izan da:

- 2016ko ekitaldian Sozietateari ezargarria zaion legeria bete dela egiaztatzea, honako atal hauetan: aurrekontu, zorpetze eta eragiketa finantzarioetan eta langilerian. Berebat, txosten honen xede izan da obra, hornidura eta zerbitzuen kontratazioari ezargarria zaion araudia bete dela egiaztatzea eta horretarako, Sozietateak 2016ko ekitaldian egin dituen esleipen nagusien lagin bat aztertu dugu.
- 2016ko ekitaldiko Urteko Kontuak fiskalizatzea. Sozietatea urtero auditatzen da; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki iritzitako proba osagarriak egin ditugu.

Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.





## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Euskotrenek lan hitzarmeneko 63.b) artikuluari jarraikiz erretiro aurreratua borondatez hartu duten 2 langileri 2016an 73.882 euroren kalte-ordaina ordaindu dizkie. Kalte-ordain honek EAEren 2016rako Aurrekontuei buruzko 9/2015 Legearen 19. artikulua 13. atala urratzen du, zeinak borondatezko erretiroaren ordainsari, kalte-ordain edo bestelako prestazio ordainezkoak arautzen dituzten hitzarmenetako artikulua eta klausula oro baliogabe uzten dituen, zeinahi dela ere hartzen duten izena.

2.- Langileak hautatzeko enpresa batek egindako bi deialditan, hitzarmenez kanpo hiru langileren kontratazio mugagabea euskarritzen duen dokumentazioak ez du egiaztatzen uzten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete direla.

Epaitegi honen ustetan, Sozietateak, aurreko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



## II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- Sozietateak urteko galerak izan ditu eta galera horiek, finkatutako finantziario baliabideen arabera, ustiaketari emandako diru-laguntza bidez estaltzen dira ekitaldiko galeren zenbatekoan, eta nagusiki, ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak kenduta; horiek guztiak ekitaldiko galera-irabazien kontuan “Ustiaketako beste diru-sarrera batzuk” modura erregistratzen dira. Ezargarria zaion finantza informazioko araudiari jarraiki eta Sozietatearen ondarean eraginik ez badu ere, ustiaketaren mentsak berdintzeko jasotako diru-laguntzak “galerak berdintzeko bazkideek egindako ekarpenak” kontuan erregistratu behar dira, balantzeko “Funts Propioak” idazpuruan. Honenbestez, 2016ko abenduaren 31n Sozietateak ekitaldian erregistratu dituen galerak eta “Galerak berdintzeko bazkideen ekarpenak” kontuaren saldoak 37,3 milioi euroren balio txikiagoa dute.

2.- 2016ko abenduaren 31n Sozietateak ez du pasiboaren zerga geroratu erregistratu, 64,9 milioi euro egin dituen, kapitaleko diru-laguntzak “Ondare garbia” idazpuruan kontabilizatzen sortutakoa. Geroratutako zergak eragindako pasibo honek, erregistratu izan balitz, aldi berean zerga geroratuak eragindako kopuru bereko aktibo baten erregistroa eragingo zukeen, konpentsatzeko dauden oinarri zergagarri negatiboak daudelako, diru-laguntza horiei lotutako zerga geroratuak eragindako pasiboen epe berean eragin daitezkeenak.

Honenbestez, nahiz ez duen atxikitako balantzean ageri den Ondare garbiaren saldoan eraginik, 2016ko abenduaren 31n Ondare garbian jasotako “Kapital diru-laguntzak” idazpuruari balio handiegia eman zaio eta “Zerga geroratuaren pasiboak” kontuari, berriz, 64,9 milioi euro gutxiagokoa. Berebat, “Zerga geroratuaren aktiboak” idazpuruak aipatutako 64,9 milioi euroen balio txikiagoa dauka 2016ko abenduaren 31n; horietatik 59,2 milioi euro aurreko ekitaldietakoak dira eta honenbestez, Erreserbak idazpuruan abonatu behar lirateke eta gainerako 5,8 milioi euroak, berriz, 2016ko ekitaldiko diru-sarrera bati legozkioke.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, honekin baterako Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

2016an esleitutako 9 kontratu nagusien lehia, esleipena eta egikaritza aztertu ditugu, ekitaldian egindako esleipen guztien gainean % 71,2 egiten duena (ikus A.11 eranskina); hona hemen alderdi azpimarragarrienak:

##### 2016an esleitutako kontratuak

- Euskotrenek eskaintzak balioztatzeko baliatutako formula objektiboa eta publikoa den arren, murriztu egiten du hasiera batean aurreikusitako haztapena, puntuazioa ematen baitie lizitazio aurrekontua berdintzen duten eskaintzei ("A1" akatsa).
- Berrikusi ditugun kontratuetatik 5tan (4, 5, 6, 8 eta 9 esp.), 12,7 milioi euroren zenbatekoan esleitu zirenetan, balio-judizioari meneratutako balorazio irizpideak orokorrak dira (SPKLTBren 150.1 eta 4 art.) ("A2" akatsa).
- 3,9 milioi euroan esleitutako kontratu batean (2. esped.) Pleguek kontratuan aldaketak aurreikusten dituzte, zein baldintzetan egin ahal izango diren modu argi eta zehatzean adierazi gabe, ez eta horien zabala eta mugak (SPKLTBren 106. art.) ("A3" akatsa).
- Guztira 12,9 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan (1, 5, 6 eta 8 esp.) kaudimenarekin lotutako ezaugarriak balioztatu dira, gizataldea esaterako, eta Pleguan ez da zehaztu eskatutako gutxienekoa (SPKLTBren 150.1 art.) ("A4" akatsa).
- Guztira 10,1 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan (5 eta 6 esp.) klausula sozialak balioztatzen dira esleipen irizpide modura; ordea, horiek kontratua betetzeko faseari soilik dagozkio (apirilaren 7ko 3/2016 legearen 4.2 art., kontratazio publikoan zenbait klausula sozial barne hartzeko) ("A5" akatsa).

##### Zatikapena

- Gure lanean hainbat hirugarreni dagozkien gastuak azaleratu zaizkigu, 409.374 eurorenak, eta komenigarria litzateke antzeko kontzeptuen arabera multzokatzea, hartara, SPKLTBren eta Kontrataziorako Barne Aginpideen arabera, dagozkion kontratazio prozedurak jarraikiz lizitatu ahal izateko (ikus A.12 eranskina).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.2 LANGILERIA

Euskotrenek txandakako lan-kontratu bati loturik erretiro partziala hartu zuten 4 langilerekin ordu osagarriak egiteko hitzarmena izenpetu du, lanaldia % 85 murriztuz; alabaina, Langileen Estatutuaren 12.5 artikulua kontratu horiek izenpetzeko aukera lanaldi partzialeko kontratuetara mugatzen du, betiere ohiko lanaldia baino % 25eko lanaldi txikiagoa egin gabe.



#### IV. 2015 ETA 2016-KO EKITALDIETAKO URTEKO KONTUAK

2015 eta 2016ko ekitaldietako urteko kontuak 1514/2007 ED bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorraren arabera aurkeztu dira, abenduaren 2ko 602/2016 EDk aldarazitakoa.

BALANTZEA		Euroak milakotan	
AKTIBOA	Eransk.	2016	2015
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>A.3</b>	<b>235.527</b>	<b>217.415</b>
Ibilgetu ukiezina		1.933	1.232
Ibilgetu materiala		233.015	215.641
Lur-sailak eta eraikuntzak .....		4.324	4.554
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala .....		226.327	210.590
Indarreko ibilgetua eta beste aurrerakin batzuk .....		2.364	497
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan inbertsioak		218	218
Finantza inbertsioak epe luzera		361	324
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>A.4</b>	<b>33.118</b>	<b>34.332</b>
Kobratzeko dauden kapitalezko diru-laguntzak		2.418	7.898
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		7.591	7.591
Izakinak		2.416	2.340
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.		7.152	7.222
Bezeroak, zerbitzuak emateagatik .....		1.386	1.564
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak .....		81	100
Askotariko zordunak .....		156	281
Langileria .....		154	122
Administrazio publikoak .....		5.375	5.155
Finantza inbertsioak epe laburrera		-	253
Aldizkakotzeak epe laburrera		16	-
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak		13.525	9.028
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>268.645</b>	<b>251.747</b>



BALANTZEA		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2016	2015
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>A.5</b>	<b>247.818</b>	<b>228.422</b>
<b>Funts propioak</b>		<b>15.876</b>	<b>17.158</b>
Eskrituran jasotako kapitala .....		72.395	72.395
Erreserbak .....		139	139
Aurreko ekitaldietako ondorioak.....		(55.376)	(53.844)
Ekitaldiaren emaitza .....		(1.282)	(1.532)
<b>Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak</b>		<b>231.942</b>	<b>211.264</b>
<b>PASIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>A.7</b>	<b>6.395</b>	<b>11.019</b>
<b>Kapital diru-laguntzek eragindako aurrerakinak</b>		<b>5.221</b>	<b>9.983</b>
<b>Epe luzeko hornidurak</b>		<b>1.067</b>	<b>1.036</b>
Langileekin epe luzeko laguntzen obligazioak.....		1.037	998
Bestelako hornidurak.....		30	38
<b>Epe luzeko zorrak</b>		<b>107</b>	<b>-</b>
<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>A.8</b>	<b>14.432</b>	<b>12.306</b>
<b>Aldizkakotzeak epe laburrera</b>		<b>548</b>	<b>-</b>
<b>Zorrak epe laburrera</b>		<b>2.739</b>	<b>1.120</b>
<b>Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk</b>		<b>9.845</b>	<b>10.077</b>
Hornitzaileak .....		523	391
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak .....		914	834
Askotariko hartzekodunak.....		3.585	3.975
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak) .....		3.099	3.083
Bestelako zorrak administrazio publikoekin.....		1.724	1.794
<b>Aldizkakotzeak epe laburrera</b>		<b>1.300</b>	<b>1.109</b>
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.</b>		<b>268.645</b>	<b>251.747</b>



## 2016 eta 2015eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien Galera eta irabazien kontua (ikus A.9)

	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>Negozio zifraren zenbateko garbia</b>	<b>25.861</b>	<b>25.943</b>
Salmentak .....	25.861	25.943
<b>Hornidurak</b>	<b>(3.474)</b>	<b>(4.008)</b>
Lehengaien kontsumoa .....	(3.848)	(4.180)
Salgai, lehengai eta bestelako horniduren narriadura .....	374	172
<b>Bestelako ustiaketa sarrerak</b>	<b>50.551</b>	<b>41.377</b>
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	852	678
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiapeneko diru-laguntzak .....	49.699	40.699
<b>Langileria-gastuak</b>	<b>(46.534)</b>	<b>(43.262)</b>
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	(35.019)	(32.325)
Gizarte zamak .....	(11.515)	(10.937)
<b>Bestelako ustiaketa gastuak</b>	<b>(26.055)</b>	<b>(25.548)</b>
Kanpoko zerbitzuak.....	(25.981)	(25.471)
Tributuak.....	(74)	(77)
<b>Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>(23.505)</b>	<b>(24.159)</b>
<b>Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte</b>	<b>20.902</b>	<b>26.484</b>
<b>Gehiegizko hornidurak</b>	<b>7</b>	<b>-</b>
<b>Ibilgetua besterenganatz. narriadura eta emaitza</b>	<b>965</b>	<b>870</b>
Narriadura eta galerak .....	879	(291)
Besterenganatzeagatiko emaitzak eta bste .....	86	1.161
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>(1.282)</b>	<b>(2.303)</b>
<b>Finantza sarrerak</b>	<b>-</b>	<b>607</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOAK</b>	<b>-</b>	<b>607</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>(1.282)</b>	<b>(1.696)</b>
<b>Mozkinen gaineko zerga</b>	<b>-</b>	<b>164</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(1.282)</b>	<b>(1.532)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(1.282)</b>	<b>(1.532)</b>



## 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion ondare garbian aldaketan egoera

### 1) 2016ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aitortutako sarrera eta gastuen egoera

	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>Galera eta irabazien kontuaren emaitza</b>	<b>(1.282)</b>	<b>(1.532)</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	41.580	11.645
<b>Ondare Garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak guztira</b>	<b>41.580</b>	<b>11.645</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	(20.902)	(26.485)
<b>Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira</b>	<b>(20.902)</b>	<b>(26.485)</b>
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>19.396</b>	<b>(16.372)</b>

### 2) Ondare garbian aldaketan egoera guztira

	Euroak milakotan				
	Kapitala eta erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiaren emaitza	Balio aldaketagatik diru-lagunt. eta doiketak	Guztira
<b>2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>72.534</b>	<b>(51.528)</b>	<b>(2.316)</b>	<b>225.989</b>	<b>244.679</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(1.532)	(14.840)	(16.372)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	-	(2.316)	2.316	115	115
<b>2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>72.534</b>	<b>(53.844)</b>	<b>(1.532)</b>	<b>211.264</b>	<b>228.422</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(1.282)	20.678	19.396
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	-	(1.532)	1.532	-	-
<b>2016-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>72.534</b>	<b>(55.376)</b>	<b>(1.282)</b>	<b>231.942</b>	<b>247.818</b>





## 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion eskudiruzko fluxuen egoera

	Euroak milakotan	
	2016	2015
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK (I)</b>	<b>1.772</b>	<b>(9.956)</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(1.282)	(1.695)
<b>Emaitzari doiketak</b>	<b>2.723</b>	<b>(4.215)</b>
Ibilgetuaren amortizazioa .....	23.505	24.159
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak .....	(374)	(172)
Horniduren aldaketak .....	580	50
Diru-laguntzen egozketa .....	(20.902)	(26.485)
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatiko emaitzak .....	(86)	(1.161)
Finantza sarrerak .....	-	(606)
<b>Kapital arruntean aldaketak</b>	<b>167</b>	<b>(3.946)</b>
Izakinak .....	298	256
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk .....	(74)	(1.717)
Beste aktibo arrunt batzuk .....	(16)	-
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batz .....	(232)	(2.602)
Beste pasibo arrunt batzuk .....	191	117
<b>Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk</b>	<b>164</b>	<b>(100)</b>
Mozkinen gaineko zerga kontzeptuan kobrantza .....	164	-
Beste ordainketa batzuk .....	-	(100)
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK (II)</b>	<b>(39.705)</b>	<b>(8.537)</b>
<b>Inbertsioengatiko ordainketak</b>	<b>(40.072)</b>	<b>(15.506)</b>
Ibilgetu ukiezina eta materiala .....	(39.988)	(15.494)
Bestelako aktibo finantzarioak .....	(84)	(12)
<b>Desinbertsioengatiko kobrantzak</b>	<b>367</b>	<b>6.969</b>
Ibilgetu ukiezina eta materiala .....	86	393
Bestelako aktibo finantzarioak .....	281	574
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak .....	-	6.002
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK (III)</b>	<b>42.431</b>	<b>20.020</b>
<b>Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak</b>	<b>42.298</b>	<b>19.968</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	42.298	19.968
<b>Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak</b>	<b>133</b>	<b>52</b>
Beste zor batzuk .....	133	52
<b>EKITALDI EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA (I+II+III)</b>	<b>4.497</b>	<b>1.527</b>
Eskudirua edo baliokidea ekitaldi hasieran .....	9.028	7.501
Eskudirua edo baliokidea ekitaldi amaieran .....	13.525	9.028





## EUSKO TRENBIDEAK – FERROCARRILES VASCOS SA-REN 2016KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEN INGURUKO ALEGAZIOAK

### I. SARRERA

Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos Saren 2016ko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, txosten honetan, sozietateak erreferentziazko gaiaren inguruan egin dituen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira.

### II. IRITZIA

#### II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

*“ Euskotrenek, lankidetzeta-hitzarmenaren 63.b) artikuluekin bat, 2016an 73.882 euroko kalte-ordaina ordaindu die euren borondatez erretiro aurreratua hartu duten bi langileri. Kalte-ordain horrek ez du betetzen 2016rako EAEko Aurrekontuen 9/2015 Legearen 19. artikulua; artikulua horrek, hain zuzen ere, eten egiten zituen borondatezko erretiroagatiko sariak, kalte-ordainak eta izen guztietako edozein diru-prestazio konpentsagarri arautzen dituzten artikulua eta klausulak.”*

### ALEGAZIOA

2016an Euskotrenen indarrean zegoen hitzarmen kolektiboak hau ezartzen zuen 63.b) artikuluan:

“Borondatezko erretiroa 61 urtetik gora izango da. Urte horiek bete eta bere borondatez erretiratu nahi duen langileak sei hilabete lehenago jakinarazi beharko du.

Kasu honetan ordainduko den kalte-ordaina hileroko antzintasunaren zenbatekoa eta 64 urte betetzeko falta zaizkion hilabeteak biderkatzearen emaitza izango da. Kalkulu honetan dagokion proportzioan aparteko ordainsarian ordaintzen den antzintasuna ere sartzen da. Baina 61 urte betetzen dituzten hil berean erretiratzen diren langileek Hitzarmen hau sinatu eta gero antzintasunagatik 175 hilebete kobratuko dituzte. Antzintasunaren zenbatekoak II. eranskinean agertzen direnak dira.

Enpresan 1987. urteko urtarrilaren 1a baino lehenago sartu diren langileei zerbitzuan gutxienez 25 urteko antzintasuna bermatuko zaie”.

Halaber, EAEko 2016. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 9/2015 Legearen 19. artikuluko 13. atalak honako hau esaten du:

“Autonomia Erkidegoko Administrazioako, erakunde autonomoetako, sektore publikoko partzuergoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako enplegatu publikoei eta orobat haien mendeko sozietate publiko eta fundazio publikoetakoei dagozkien akordio, hitzarmen edo itunak etenda geratuko dira beren aplikazioan artikulua honetako aurreikuspenak betetze aldera, baldin eta haien aplikaziotik % 1etik gorako lansari-gehikuntzak eratortzen badira 2016 ekitaldirako, eta, hortaz, artikulua honen aurka doazen klausulak aplikaezin bihurtuko dira.

Etenda geratuko dira beren aplikazioan, orobat, borondatezko erretiroagatiko sariak, kalte-ordainak eta izen guztietako edozein diru-prestazio konpentsagarri arautzen dituzten artikulua eta klausulak.

Etete horrek eragina izango du ondorio-data 2016ko urtarrilaren 1aren eta 2016ko abenduaren 31ren artean daukaten enplegatu publikoen borondatezko erretiroetan.

Etenda geratuko dira, berebat, ordainsari-gutxitzerik gabe lanaldia aldatzeko eskubidea ematen duten adinagatiko ordutegi-baimenak, betiere ez baldin badagozkie urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 48. eta 49. artikuluetan jasotako kasuei”.

Hitzarmen kolektiboaren artikulatua, indarrean badago, legea da, definizioz, hitzarmena sinatu duten alderdien artean eta, ondorioz, nahitaez eta aitzakiarik gabe bete behar da, hau da, betetzea ez da borondatezkoa.

Hala ere, 2016an aplikatu behar zen hitzarmen kolektiboaren 63.b) artikulua etenda egon da, eta ez da modu orokor eta nahitaezkoan aplikatu.

Euskotrenen, 2016. urtean, guztira hogeita bederatzi langilek hartu dute erretiroa, hainbat modalitatetan, eta horietatik bi baino ez dira borondatezko erretiroak izan.

Bi kasu horiek banan-banan aztertu dira, eta erabaki da komenigarria zela langile horiekin akordio bat erdiestea, hitzarmen kolektibo hori etenda zegoela eta enpresak hori betetzeko beharrik ez zuela kontuan hartu gabe.

Ez zen akordio bat erdietsi hitzarmenaren 63.b) artikulua ondorioak ezarri zirelako eta enpresak hori aplikatu behar izan zuelako, baizik eta, etenda egon arren, enpresak bi langile horiekin akordio bat erdiestea erabaki zuelako.

73.882 euroko zenbateko osoa bi langileei ordaindutako zenbatekoa da; zehazki, bati 60.558,75 euro ordaindu zitzaizkion eta, besteari, berriz, 13.322,93 euro.

Lehen langileak 2016ko abuztuaren 31n deuseztatu zuen bere lan-harremana Euskotrenekin, eta 1955ko irailaren 12an jaio zen; beraz, lan-harremana bukatu zen unean 61 urte zituen. Euskotreneko zuzendaritzaren eta langilearen artean erdietsitako akordioa alderdien borondatearen emaitza da, eta langile horien egoeraren arabera. Hain zuzen ere, langile horrek maniobra-lanak egin ditu hainbat bosturtekoz, gaueko txandan, Durangoko egoitzan. Hartu diren antolakuntza- eta ekoizpen-neurriak direla eta, kategoria hori desagertu egin da, eta tren-agente kategoriarekin elkartu; ondorioz, langile horrek ordura arte egiten zituen lanak egiteari eta gaueko txandan aritzeari utzi zion. Esan dugun moduan, urte luzeak zeramatzan lan horiek txanda horretan egiten. Legearen arabera egindako eta alde sozialarekin hitzartutako aldaketa horrek ondorio fisiko eta psikikoak izan zituen langilearengan, eta ia lau hilabeteko aldi baterako lanerako ezintasunak eragin zituen, ez baitzen gai izan lan-egoera berrira (bidaiariak garraiatzea) egokitzeke. Aurreko egoerara itzultzea ezinezkoa zenez eta langile horrek ezin zuenez beste lanposturen bat bete, tren-agente lanak egiteko prestakuntza baino jaso ez baitzuen, bi alderdiek erabaki zuten lan-harremana bukaraztea. Eta enpresaren erabakia nabarmen onuragarria izan da harentzat ikuspegi guztietatik, baita alderdi ekonomikoari dagokionez ere. Hirurogei urte baino gehiago zituen langile bat zen, tren-agente kategoria zuena eta duela gutxi ia lau hilabetez



bajan egona zena, baldintza berrietara egokitzeko gai izan ez zelako. Gainera, langile horrek ez zuen prestakuntzarik beste lanpostu hutsen batean aritzeko. Hori dela eta, harekin akordio bat erdietsi zen eta 60.558,75 euro ordaindu zitzaizkion. Eta esan dugu akordio hori enpresarentzat ere onuragarria dela honako arrazoi hauek direla eta: 4 urte falta zitzaizkion 65 urte bete arte, eta antzinatasuna dela-eta jada 20.767,04 euro aurreztu dira (hilean 370,84 euro bider hamalau lansari, bider bost urte), baita bost urteko soldaten 153.618,08 euro ere (2.743,18 euro bider hamalau paga, bider lau urte). Egoera horrek langilea denbora luzez postuan ez egotea zekarren, eta hori ez zen onuragarria enpresarentzat, beharrezkoa baitzen zerbitzu publikoa emateko hura ordezkatzeari; ondorioz, lan-harremana bukatzea erabaki zen. Hori dela eta, langilearekin adostutakoa gainerako 39.791,71 euro horiek justifikatuta daude. Are gehiago, enpresa honi igorritako Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren txosten batean hau esaten zen, egindako kontsulta baten harira: "Indarrean dagoen araudiak inolaz ere onartzen ez duena da langilearen osasun-egoera ezagututa horrekin bateraezina den lanpostu bat esleitzea, horrek langilearen osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian edo oso larrian jarriko badu. Kasu horretan enpresak izan litzakeen lege-erantzukizunak oso larriak izan litezke".

Bigarren langileari dagokionez, ordaindutako zenbatekoa, 13.322,93 euro, jubilatu arte lan egiten jarraituz gero jasoko lukeena baino nabarmen baxuagoa da, soilik antzinatasunaren kontzeptua kontuan hartuta; hain zuzen ere, antzinatasunagatik hilean 370,84 euro jasotzen zituen eta hori hamalau lansarirekin biderkatuta urtean 5.191,76 euro ziren. Horrek esan nahi du bi urte eta erdi gehiagorik lan eginez soilik, ordaindutako zenbatekoa baino gehiago irabaziko zituela kontzeptu horrengatik. Ondorioz, lan-harremana deuseztatzeko unean, hau da, 2016ko urrian, zuen adina kontuan hartuta (61 urte), akordioa ekonomikoki onuragarria da enpresarentzat, argi eta garbi.

Hala ere, beste kasu batean langileak borondatezko erretiroa hartzeko egindako eskaera ez da aintzat hartu, eta enpresak ez du eskaera onartu beharrik izan, etenda zegoen 63.b) artikulua horren aplikazioari jarraikiz. Ez da hori lortzeko erreklamazio judizialik egin. Eskaeraren kopia bat erantsi da (Eranskina).

Hori dela eta, ondorioztatu beharra dago Euskotrenek ez duela urratu 63.b) artikulua aplikazioa eteteko betebeharra, nahiz eta bi langilerekin akordioak erdietsi dituen; izan ere, hori kasuaren arabera aplikatu da, unean-unean egon diren baldintzen arabera, eta ez modu orokortu eta nahitaezkoan.

Beste alde batetik, gastu horren eraginkortasuna eta efizientzia aztertzen badira, ondorio hau baino ezin da atera: printzipioetara egokituta dago eta ez da gabeziatzen hartu behar.

Lehenengo kasuan ziurrenik dirua aurreztuko da, langilea lanpostura ez bertaratzeko aukera handiak zeudelako eta ekoizpena egokitzeko arazoak zeudelako. Ezintasun iraunkor osoa aitortu behar izateko aukera saihestu da; izan ere, langilea babesteko neurriak nahikoak izan ez direla esaten bada, baliteke prestazioetan errekargu bat izatea. Horrez gain, Lan Ikuskaritzaren jarduketa zehatzailea ere saihestu da, langilea bere osasuna kaltetzen duen postu batean mantentzeagatik.

Bigarren kasuari dagokionez, aurreztearen bistakoa da; ez dago horren inguruko zalantzarik.



Hori dela eta, ondorioztatu beharra dago Euskotrenek ez duela urratu 63.b) artikulua aplikazioa eteteko betebeharra; izan ere, hori kasuaren arabera aplikatu da, unean-unean egon diren baldintzen arabera, eta ez modu orokortu eta nahitaezkoan.

*“- Hiru langileri, hitzarmenetik kanpo, langileak hautatzeko enpresa batek egindako deialdien bidez, egindako kontratu mugagabeak justifikatzeko eskuragarri dagoen dokumentazioak ez du ahalbidetzen berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak bete direla egiaztatzea.”*

## ALEGAZIOA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren dokumentuaren II.1 kapituluko 2. atalean ageri denari dagokionez, hau da, hiru langileri kontratu mugagabeak egiterakoan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak bete direla egiaztatu ez izanari dagokionez, adierazi behar da 2016. urtean Laneko Segurtasunaren Koordinazioaren arduradun, Barne Kontrolaren arduradun eta Aurrekontuaren Kudeaketaren eta Kontabilitatearen arduradun postuak, hirurak ala hirurak hitzarmenetik kanpoko langileei zegozkienak, zegozien hautaketa-prozesua izan zutela.

Prozesu horiek gauzatzeko ardura zuten enpresak Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Euskotrenen Kontratazioari buruzko Barne Araudian ezarritakoaren arabera hautatu ziren, eta enpresa horiek enplegu publikoa eskuratzeko printzipioen jakitun ziren.

Publizitate-printzipioa hiru kasuetan bete zen; izan ere, deialdia irakurle gehien dituzten hiru egunkarietan eta horretarako kontratatutako enpresen webguneetan argitaratu zen.

HKEEaren izenean fiskalizazioa egin duten langileek eskatu dituzten agiri guztiak jaso dituzte, besteak beste hiru kontratazio horiei erreferentzia egiten dieten Euskotrenen bulegoetako espedienteak. Eta berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak zalantzarik gabe bete zirela egiaztatzeko, Euskotreneko arduradunek kontratazio-prozesuak gauzatu zituzten enpresei eskatu zieten erreferentziako espedienteak igortzeko; halaxe egin zen eta, ondoren, jasotako dokumentazioaren kopia bana igorri zitzaizen fiskalizazioaz arduratzen ziren langileei. Espediente horien edukitik zalantzarik gabe ondorioztatzen da kasu guztietan bete egin zirela berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak. Halaxe adierazten dute Kontuen Euskal Epaitegiari helarazi zitzaizkion agiriek eta interesdunek nahiz hiru kontratazio-prozedura horietako alderdi sozialak inpugnaziorik aurkeztu ez izateak. Hala, irakurle asko dituzten EAEko paperezko hiru egunkaritan argitaratu ziren hiru deialdien iragarkiak. Kontratututako enpresek banan-banan aztertu zituzten hautagaitzak, hiru postu horietarako eskatzen ziren baldintzak betetzen zituzten egiaztatzeko. Baldintzak betetzen ez zituzten hautagaiak baztertu zituzten, eta betetzen zituzten hautagaiak ontzat eman zituzten. Jarraian, probak egin ziren. Horien emaitzak kontuan hartuta, enpresari jakinarazi zitzaion zein ziren eskatutako profilerak hobekien egokitzen ziren hautagaiak. Ondoren, Euskotrenek horien artetik deialdiaren xede ziren postuetara hobekien egokitzen zirenak aukeratu zituen, elkarrizketak egin ondoren. Hori guztia agirien bidez frogatuta dago.



Beraz, hizpide ditugun hiru kontratazio horietan Euskotrenek hiru printzipio horiek eta publizitatearen printzipioa zorrotzasun osoz bete ditu; gainera, kontuan hartu beharra dago berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak betetzeko beharra jurisprudentziarik berrienak ere jorratu duela. Ildo horretatik, berariaz aipatu nahi dugu enpresa-erakunde publikoetan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak aplikatzeari buruzko intereseko gaiei dagokienez 2017ko ekainaren 19an Balear Uharteetako Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak emandako epaia. Adierazi da enplegu publikoa eskuratzeko prozesuak arautzen dituzten berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak ezin direla zorrotzasun berdinarekin aplikatu zuzenbide pribatuaren mendeko erakunde publiko instrumentaletan; izan ere, hasteko, erakunde horien izateko arrazoia administrazio-prozedura zurrinak gainditu ahal izatea da, askotan horiek bateraezinak baitira zerbitzuak emateko esparruan garatzen den eta zuzenbide pribatuaren mendekoa den jardura batekin. Erakunde instrumental horien kontratazioak ez dakar inolako diru-sarrerarik funtzio publikoan, eta langile horiek ez dira administrazio publikoko langileak izaten; ondorioz, pertsona horiei ezin zaizkie aplikatu langile publikoentzat ezarritako hainbat berme, besteak beste bidegabeko kaleratzeetan langile finkoak berriz onartzeko araua, eta, beraz, langile horiek ezin dute beste lanposturik eskuratu, ez goragoko mailetan ezta beheagoko mailetan, kontratatu dituen erakundetik kanpo.

Horrez gain, Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 6ko Epaia hizpidera ekarri da. Epaia horretan, Auzitegi Gorenaren 2014ko irailaren 18ko Epaia aipatzen da, eta honako hau jasotzen da, Auzitegiaren hausnarketak ardatz hartuta:

1. Konstituzioaren 23.2 eta 103. artikuluek erreferentzia egiten diote funtzio publikora sartzeari, baina hori ezin da kasu honetan aplikatu, sozietate-forma duen enpresa-erakunde batekin lan-harreman komuna dutelako. Konstituzioak hau baino ez du jasotzen: herritarrek eskubidea dute funtzio eta kargu publikoak eskuratzeko aukera-berdintasuna izateko. Funtzio-publikoak eskuratzea baino ez da aipagai diren printzipio konstituzional horien mendekoa.

XXXSA ez dago behartuta funtzio publikoak eskuratzeko printzipio konstituzionaletara, errekurtsuan planteatutako baldintzetan. Ikuspegi horretatik, ezin da esan hitzarmeneko araudiak herritarren eskubide bat (erakunde horretan lanpostu bat lortzea) urratzen duenik.

2. Konstituzio-doktrinak eta Laugarren Salaren epaiak adierazten dute ezin zaiola enplegu publikoa lortzeko erregimena aplikatu XXXSaren laneko kontratazioari. Hala ere, horrek ez du kentzen desiragarria eta logikoa denik printzipio horien arabera jokatzeko, inpugnatu den hitzarmen kolektiboan egiten den moduan.
3. Argigarria da Ministerio Fiskalak egindako txostena gogora ekartzea: Negoziazio kolektiboaren esparruan, enpresako eta sindikatuetaiko ordezkariak akordio bat erdietsi dute hutsik dauden postuak betetzeko. Hala, postuak betetzeko lehentasuna eman zaie aldizkako langile finkoei eta duela denbora gutxi sei hilabetez lanean aritu direnei. Akordio horrek, berez, ez du inolako muga edo oztoporik jartzen lanpostu horiek eskuratzeko orduan.



4. Enpresaren jarduera nagusia ikusita (larrialdiei erantzutea, basoko suteei aurrea hartzea eta horiek itzaltzea, ingurumena babestea etab.), egokitzat jo daiteke aipatu diren zerbitzu horiek gauzatzeko beharrezko prestakuntza duten langileak erabiltzea, eta horrek ez luke Konstituzioak araututako betebeharririk urratuko.

Errekurtsoa jarri duenak ahalegin dialektiko handia egin badu ere, ezin da XXXSA enpresa Administrazio Publikoarekin identifikatu, harreman pribatuak arautzen dituzten baino betebeharririk zorroztasunak betetzera behartzeko.

5. Hitzarmen kolektiboan berdintasun-eskubidea eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea errespetatu behar badira ere, horiek ezin dute beste testuinguru batzuetan duten irismen bera izan; izan ere, hitzarmen publikoa harreman pribatuen arloan gauzatzen da, eta bertan oinarritzeko eskubideak, besteak beste berdintasun-eskubidea, ñabardurekin aplikatu behar dira, borondatearen autonomiaren printzipioa oinarri duten beste balio batzuekin bateragarria izan dadin.

Konstituzioak eskatzen duena tratu-desberdintasuna objektiboki justifikatzea da, eta proportzionaltasunaren judizioa gainditzea Konstituzioari dagokionez hartutako neurriaren, lortutako emaitzaren eta hasierako xedearen artean.

6. Beste alde batetik, errekurtsioan barne-kontraesan bat dago: kolektibo “pribilegiatuek” lehenik proba batzuk gainditu behar izan dituzte egoera horretara iristeko, eta ez da horri buruzko hausnarketarik egin.

Edo horietan ez ziren Konstituzioak eskatzen zituen baldintzak betetzen, eta, kasu horretan, ezin izango litzateke azaldu hortik eratorritako ondorio bat, eta ez nagusia, zalantzan jartzea. Edo berme horiek ikusi dira eta, ondorioz, ez dauka zentzurik berriz ere horiek eskatzeak.

Aldizkako langile finkoei dagokienez, enpleguaren egonkortasun-baldintzek eta kontratazioaren izaerak talka egingo lukete langile horiei lehentasuna eman ordez enpresatik kanpoko pertsonen lehentasuna ematearekin (ikus indarrean dagoen Langileen Estatutuaren 16.2 artikulua).

7. Aurreko hitzarmenek beste sistema bat izatea ez da inolaz ere nahikoa argumentu egungoaren baliagarritasuna zalantzan jartzeko.

Beste alde batetik, XXXSA enpresako lanpostuak lortzeko publizitate- eta berdintasun-printzipioak errespetatu behar direla ulertzen den neurrian, hitzarmena printzipio horiek betetzen dituela aintzat hartuta interpretatu behar da. 26. artikuluan hutsik dauden postuak betetzeko prozesu konplexu baten 3. fasea nola garatzen den azaltzen da, eta ez hasierako enplegua nola eskuratu (erreferentziako bi kolektiboetako kide dela aintzat hartuta). Are gehiago, hitzarmen kolektiboko 23. artikuluan (“Enplegu egonkortasuna”) hainbat berme ezartzen dira, “unean-unean gai honi buruz erreferentziako araudiak sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten pertsonentzat ezarritakoa eragotzi gabe”.

Hala, doktrina jurisprudenzial horri jarraikiz, funtzio publikoa atzitzeari buruzko Konstituzioko 23.2 eta 103.3 artikulua ezin dira kasu honetan aplikatu; izan ere, sozietate-izaera duen enpresa-erakunde batekin lan-harremana duten langileak dira, nahiz eta Euskotrenek zorroztasun osoz bete dituen printzipio horiek.





Beste alde batetik, gure ustez, egitate bat fiskalizatzeaz arduratzen diren pertsonak uste izateak egitate hori ez dela behar bezala frogatu, ez du esan nahi legea urratu denik. Ez ditugu ezagutzen bete ez diren legezko aginduak, ez baitigute horren berri eman, enplegu publikoa atzitzeko printzipio generikoak ustez ez betetzeaz gain, nahiz eta printzipio horien aplikazioak ñabardurak dituen, ikusi dugun moduan, sozietate anonimo izaera eta kapital publikoa duten enpresetan.

Bukatzeko, prozesu horiek gauzaterakoan publizitate-, berdintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak zorrotz errespetatu zirela behar bezala frogatu ez bada, are froga gutxiago dago esateko prozesu horietan printzipio horiek bazter utzi zirela eta, ondorioz, legea urratu zela.

### III. BARNEKO KONTROL-SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

#### III.1 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

##### 2016an esleitutako kontratuak

*“- Berrikusi ziren kontratuetatik bostetan (horien esleipena 12,7 milioi eurokoa izan zen), balio-judizioen mendeko balorazio-irizpideak generikoak ziren.”*

#### ALEGAZIOA

Enpresa lizitatuak kontratazio-prozeduretan dituzten agiriak hauek dira: Administrazio Baldintza Orokorren Plegua eta bere karatula, eta Preskripzio Teknikoen Plegua.

Operadore interesdunek agiri horiek kontuan hartu behar dituzte eskaintzak egiteko.

Baldintza Orokorren Pleguaren karatulan balorazio-irizpideak zerrendatzen dira, baina horien interpretazioa, irismena eta xehetasunak, oro har, Preskripzio Teknikoen Pleguan ageri dira.

Kontratazio-prozeduran interesa duten enpresei, eskaintzak baldintza berdinetan egin ahal izan ditzaten, balorazio-irizpideen zerrenda duen Baldintza Orokorren Pleguaren karatula emateaz gain, prozedurari eragiten dieten gainerako agiriak ere ematen zaizkie, besteak beste Plegu Teknikoa eta horren eranskinak.

Plegu Teknikoan zehazten da irismena, eta bertan adierazten da irizpide bakoitzerako zer eskatzen den.

SPKLTBren 150. artikulua, Administrazio Publikoetako balorazio-irizpideak arautzen dituenak, ez du adierazten irizpideek zenbateko xehetasun-maila izan behar duten.

Bistakoa denez, irizpideak generikoak ez izateko baldintzaren xedea arbitrariotasunak saihestea da, irizpideen irismena mugatua izatea eta enpresa lizitatuak irismen hori behar bezala ezagutu ahal izatea, kontratazio-irizpideak betetzen direla bermatzeko.

